

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

2024rako enplegu publikoaren eskaintza

Lanpostu zerrendaren aldaketa onetsi ondoren, Guardiako Udalak osoko bilkura berezia egin zuen 2024ko abuztuaren 14an, eta ikusirik langile berriak sartuz bete behar diren giza baliabideen beharrak, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluan eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 69.2 eta 70.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

2024ko irailaren 27an sindikatuekin negoziazioak egin ondoren.

Esleitutua dudan eskumenari jarraituz, honakoa ebatzi dut:

Lehenengoa: 2024rako enplegu publikoaren eskaintza hau onestea:

Plaza kopurua: 1.

Plaza: administrari laguntzailea.

Langile mota: funtzionarioa.

Taldea: C2.

Arduraldia: Partziala (ehuneko 50).

Hizkuntza eskakizuna: 2. (B2; B2).

Derrigortasun data: datarik gabe.

Plaza kopurua: 2.

Langile mota: lan kontratuduna.

Lanpostua: langilea.

Taldea: AP.

Arduraldia: lanaldi osoa.

Hizkuntza eskakizuna: 1. (B1;B1).

Derrigortasun data: datarik gabe.

Bigarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera, hautaketa prozesuen deialdiak onesteko gehieneko epea 3 urtekoa izango da, lan eskaintza publiko hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Beraz, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke alkateari hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu daiteke, 2 hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Aurrekoez gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango dute.

Laugarrena: Udalbatzari horren berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Guardia, 2024ko urriaren 7a

Alkate-lehendakaria

RAUL GARCÍA EZQUERRO